

Txama Integrazio Topagunea

TXAMA
Integrazio Topagunea



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Nahiz eta gure proiektua Oñatiko integrazio beharrea dagoen edozein pertsonari zuzendurik egon (arraz, jatorria eta generoa kontuan hartu gabe, beraz, oñatiarrak ere herrian integratzera etor daitezke), gure merkatuaren segmentazioa bezeroek edukiko dituzten baldintzak aurreikusiz zatitu dugu. Hortaz, bezero potentzialak adinen arabera banatu ditugu; horrela, 15-30 urte bitartekoek, 30tik 45rako adina dutenek eta 45 urtetik gorakoek talde bana osatuko dute. Behin adinetan banaturik adin bakoitzetik bezero potentzialak zeintzuk diren ere aurreikusi dugu.

Lehen multzoaren kasuan, kontuan harturik Oñatiko errefuxiatuen zentroan adin tarte horretako jende ugari dagoela, integrazio beharra nabarmena denez, batez ere horiengana zuzenduko dugu gure proiektua (nahiz eta, beste baldintzatako pertsonari ateak ez itxi).

Bigarren taldeari dagokionez, kontziente gara 30-45 urte bitarteko integrazio beharrea dauden pertsonak, batez ere, kanpotik lan bila Oñatira etorri den jendea dela, horien jatorria dena delakoa izanik, hau da, gehienak oñatiarrak ez direla.

Azkenik, hirugarren multzoa, 45 urtetik gorakoak, integrazio beharrea dauden pertsonak osatuko dute. Kasu honetan, nabaritu dugu, adin tarte horretan integrazio beharrea dauden pertsona gehienak behartsuak edo denborarekin kontaktu gabe geratu den jendea dela, dena delako arrazoiengatik. Horregatik, azken multzo hau, batez ere, baldintza horietako jendearentzat zuzendu dugu.

15-30 urte: Gehienak herriko errefuxiatu zentrotik etorriko lirateke.

- Pertsona berriak ezagutzeko beharrea daudelako eta bizi berri baten bila ari direlako.

30-45 urte: Beste herriren batetik etortzen diren langileak.

- Lanagatik Oñatin bizi direlako eta egunerokoan beste pertsona batzuekin erlazionatzeko beharra dutelako.

45 urtetik gora: Kaleetan dauden behartsuak eta kontaktua galdu duten jendea.

- Bakarrik egoten direlako eta horregatik integratzeko beharra dutelako.

Multzo bakoitza baldintza jakin bateko pertsonari zuzendu izanak ez du esan nahi baldintza horietatik kanpo geratzen den jendea eta adin tarte betetzen duena (eta, jakina, integrazio beharrea dagoena), ezingo denik gure topagunera hurbildu edo bertako bezero izan.